

Zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

EUSKALTZAINDIA

* Ate joka diru eske *

Denok dakigu edo jakin behar genuke behintzat zer den EUSKALTZAINDIA, Euskal Akademia. Hau baitugu geure herriaren mintzairaren alde lan egiteko dugun Erakunde edo Instituzio lehena.

Erakunde honek dei dagio Euskal Herriari diruz lagundu dizaion. Dei larri hori zabaldu duenarengana jo dugu, hau da Jose Luis Lizundiagana. Jaun hau Euskaltzaindiaren idazkari-ordea dugu; Erakunde honen bulegoko arduradun eta eragilea.

Jose Luis Iruñeian jaio zen. Abadiñon bizi zaigu. Gizon gazte honek kazetalaritzan eta irratan egiten du lan: La Gaceta del Norte eta Bilbaoko Herri Irratian. «Anaitasuna» aldizkarian gogatsu irakurtzen ditugu beronen euskal artikulak.

Diruz urri dabil Euskaltzaindia berari dagozkion euskal lanak egiteko. Diru kontua aipatu dugu ausarki beraz, egin diogun elkarrizketan.

—Diru eskean kanpaina bat egiteko asmotan zarete. Zer da hori?

—Orainsu urte bete Euskaltzaindiak batzorde bat izentatu zuen, finantza plan bat prestatzeko. Batzorde hori jaunok osatzen dute: K. Santamaria, Manu R. Urrestarazu, J. San Martín jaunek eta lauok. Bilkura zenbait egin genuen. Zenbait urrats urratu ere bai. Azkenik eskema bat egin. Diru eskea egiteko pertsona egoki bat derri-gorrezkoa zela ikusirik eta bestalde, pertsona egoki hori aurkitzea aski zaila zela sumaturik, aurten martxoko euskaltzain osoen batzar berezian neu izendatu ninduten lan horri lotzeko. Batzarreko agiriak dienez «ekonomia eragile» egirik nauzue.

—Herriari dei egin beharrik bai ahal zen?

—Egoera normal batean honelako Erakunde batek ez luke deirik zertan eginik. Herriak herri erakunde eta zerbitzuei eusteko ordaintzen dituen zergen bidez biziko bai litzateke Euskaltzaindia. Herriak bere zergak ordaintzen ditu baina diru hoiek hor nonbaitera jotzen dute. Eman bai hartu ez. Ondotxo dakigunez, Euskaltzaindia lau Diputazioek sortu zuten. Orain dela 54 urte. Garai hartan Bizkaiko Diputazioak Buru zen Adolfo de Urkijok, Julio Urkijoren anaiak alegia, horra zer zioen: «Las Diputaciones de Navarra, Guipúzcoa, Alava y Vizcaya contribuirán al sostenimiento de la Academia en la proporción y forma que se fije de común acuerdo». (Ikus R.I.E.V.I. urtea, 1907, 1. zenbakia; 31 orrialdea; eta «Euskera» 1. urtea, 1. zenbakia 1919-1920, 38. orr.).

—Diputazioek zenbat ematen dute?

—Diputazioek? Bizkaikoak 100.000 pezeta; Gipuzkoa eta Nafarroakoak 25.000 aurtentarte —hemendik aurrera 50.000 emateko dira; urte askotan deus eman gabe egon ondoren igaz 50.000 pezeta ematen hasi zen Arabakoa —erdia Euskaltzaindiaren kutxa nagusirako eta beste erdia Arabako Ordezkaritzaren beharretarako.

Orain dela 50 urte Gipuzkoako Diputazioak 10.000 pezeta (orduko pezetak!) ematen zituela ikusirik, gaurregun, 1973an Diputazioek ematen dutenaz bakarrik Euskaltzaindia ezin ditekela bizi, gauza nabaria da. Urrik eman ere! Lehen

udal edo Aintamientu batzuek ere laguntzen zuten. Orain, 15000 pezeta besterik ez bada ere ematen ditu Donostiakoak. Aurrezki Kutxa batzuek ere zertxobait ematen dute. Bizkaikoak 40.000 pezeta eman ditu baterako eta besterako; Bilbaokoak 20.000 eta «Caja Laboral Popular»ek 10.000.

—Hainbesteko gasturik izango duzue, zer nola konpontzen zarete?

—Liburuen salmentatik, zenbait jaunek ematen duen laguntzatik eta noizean behin hortik eta handik datozen eskupekoetatik. Konpondu beharko. Ze erremedio! Alogera urri batzuk pagatzeko eta etxeko utzi ezinezko gastuak garbitzeko ozta-ozta iristen zaigu.

—Lehendik ere diru kanpainarik egirik zarete, ezta?

—Bi egin genituen. Eskabide berezi-berezia ziren. Etxea berrizatzeko eta egokitzeko egin genuen, erabat lotsagarri baitzegoen. Astiz euskaltzain laguntzaile eta euskaltzale adiskideak eta biok eratu genuen lehen kanpaina; bigarrenak berriz, Irigoyen liburu zainaren laguntzaz egin genuen liburutegia hornitu eta egokitzeko asmotan. Bai batean eta bai bestean oso ongi erantzun zuen herriak, herri xehak, herri langileak.

—Nori zuzenduko zaio eta nola zuzenduko oraingo kanpaina?

—Lau sailetan banatzen dut Euskaltzaindiaren ekonomia arloa. 1. Diputazioena dugu lehen iturria, gaur hainbeste ur ematen ez badu ere; 2. Beste ofizial erakundeena: Estaduko Instituzio, Euskal Herriko Udala, Aurrezki Kutxa eta bestelakoak; 3. Enpresena: banku etxe, industria etxe, komertzio etxe eta abar (enpresa etxe batzuek jadanik lagundu digute; enpresa gizon batek igaz esan zidan, euskal industri gizonak, «Tráfico de Empresas», «Utilidades», «Licencia Fiscal» eta horrelakoetatik aparte, zertxobait bederen eman behar izango luketela Euskaltzaindiaren beharretarako); 4. Partikularrena, hots edozein euskaldunena.

Liburuto edo folleto bat prestatu dugu. Lehenengo saila, Diputazioena alegia ondo gogoan dugularik ere, ez diogu ezer horietaz liburuto honetan. Beste hiruei dagokie folletoa. Lehen lau kapituluak noiz eta nola sortu zen Euskaltzaindia, zer eta bertaroko den, zer egin den



Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiaren idazkari-ordea.

zer egiteko duen, zer egoeratan aurkitzen den esaten da. «Euskaltzaindiaren zeregin nagusiak gaur» aipatzen da liburuaren erdialdean eta ondoren «Egin ahal izango liratekeen lanak» behar beste diru balu, esaten da. Liburutoaz batera eskutitz bat bidaliko da: 2. eta 3. saileko dagokiena bat, eta bestea partikularrei zuzendua. Laguntza erak erraztu eta sistematizatzeko txartel-orri berezi bat bidaliko da. Dena dugu prest; datorren hilabetean, irailan hasiko gara zabaltean epeka Euskal Herri osoan barrena.

—Zabalkundeak zeuk bakarrik egingo ote duzu?

—Oraingoz gehienbat bai. Euskaltzaindiaren funtzionari bakarra neu naiz. Euskaltzaindiko lanek, kazetalaritza eta irrati lanek ez didate nik nahi beste denborarik utziko. Hori dela eta askoren laguntza nahita ezkoa duket, hainbeste leku eta zereginetan barreiaturik dauden euskaltzain oso eta laguntzailena batez ere.

—Dei horrek harrera onik izango duela uste ahal duzu?

—Badut optimismoa, nahiz eta optimismo relativoa izan. Erlatiboa diot, izan ere aldeaz aurretik baitakit, alde batek ez dela hemen honelako kanpaina egiteko Katalunian dagoen bezalako tradizioa. Han, «Omnium Cultural» delakoak urtero miloinada bat biltzen du. Han aspaldidanik daude kargututa eta ohiturik estamentu ofizialen hutsunea betetzen, eta badakit Bilbaon bizi den batek urtero 20.000 pezeta ematen dituela. Hemen ez da horrelakorik. Bakoitzak bere taifa erreinutxoari ematen dio es-

kupekoa, eta erakunde edo instituzio bati ematen zaionean halako baldintza batzuri lotzen bazaio emango zaio, hots zientzia erakunde edo zientzia gizona ezjakintasunaren subjektibismoa barmenez bere gogara makurtu nahi izaten da. Kapritxoko laguntzak ere izaten dira gure artean. Honela, prioridade arazoa ikusi ere ez da ikusten. Inork irakurriko ez dituen Shakespeareren lan guztiak argitaratzeko laguntza bilatuko da, eta bien bitartean, euskarak mintzabide izaten segitzeko beharko litzukeen ikastoletarako txutak eta abar egiteko diru eskasiz ibiliko gara. Baina dena dela, gure Herriak Euskaltzaindiari ondo erantzuko diola uste dut, katalanen tradizioaren antzeko bideak hartuko dituela alegia.

—Ze presupuesto du Euskaltzaindiak?

—Igaz 750.007 pezetarena. Baina azterketa labur bat egin dut eta normalki ibiltzeko lau milloiko minimum bat beharko luke. Euskaltzaindiaren Etxeko eta Ordezkaritzako bulegoetako gastu eta alogerak ordaintzeko. Esate baterako, Donostiako Ordezkaritzako idazkari Zeruko ARGIAKO lankide duzun Xalbador Garmendia duzue; bere lana duban egiten du. Zenbat lan egingo lukeen Xalbadorrek bere kargua normalizatuz gero. Era berean beste lankide askok. Batzordeen lan guztiak. Adituz batzordeak han eta hemen bilkura eta saio asko egin du. Bilerak guzti horien fruitu da adituz batua. Den-dena duban egin dute. Bestalde symposium eta abarretan parte har ahal izateko sosa behar da. Berdin

EUSKERA errebista maizago eta hobeto ateratzeko. Batzarretara jotzen direnei guttienez dieta bat emateko, beste Akademietan egiten den bezala. Textu zaharrak bir argitarteko eta ikastaroak eratzeko, nahi eta nahi ez dirua behar da.

—Ametsetan murgilduta ez ote dakusazu Euskaltzaindia?

—Ez! Orain arestian aipatu dudana eta gehiago behar baitu Euskaltzaindiak. Alogerak hiru hilabete atzeraturik eta fakturak urte bete beranduago ordaintzea, errenka ibiltze da. Hogeitaka lagun ordainduta, batzuk linguistikari, besteak lexicografari, halakoak atlasgintzan, honelakoak burokrazi eta beste antolakizunetan ikus ditzagunean, orduan bai, «bizi dela» Euskaltzaindia, esango dugu. Euskal Herriak eta Euskerak honelako premiarik ez duenik ez ahal dit inork ukatzen!

—Zerbait gehiago esan nahi ahal diezu Zeruko Argiko irakurleei?

—Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren izenean eskerrak asko laguntzaile guztiei. Arazo honi dagozkion galdera guztiei erantzuteko prest nauzue euskaldun guztiok. Norbaitek gure folletoa nahi badeza eska bezaigu. Aipamen berezi bat egin nahi diot Karlos Santamaria lankide jaunari, bera baita asmo hauen asmatzailea. Eskerrak bide batez Zeruko ARGIAren zuzendariari Euskal Herriari begiratzeko et mintzatzeko leio eder hau eskaini didalako. Besterik ez.

Gure Leihatilatik

UZTAPIDE-EIBAR

Ez zaigu oraindik ahaztu Eibarko "Astelena" pelotalekuan Uztapideri eskaini zitzaion omenaldia. Jendeak oso ondo erantzun zuen, eta egun artan bildutako diru laguntzaz gainera, eibartarrek zilarrezko oroigarri bat eskaini berri diote ain maite duten "Uztapide" zaharrari.

Eskaintza au dela eta, eibartar talde bat joan zaio Uztapideri Oartzuna bertara. Lagun artean Segundo Iturralde, eta ara non asten zaigun kantari:



UZTAPIDE

- I -

Gure Manuel Uztapide ainbat maite deguna zoriontsua benetan zu jaio zinaiden eguna. Zestuan jaio ta gero etorria Oartzuna. Gizon jator ta apala benetako euskalduna, bertsolarien aita ta maixu eta denen txapelduna, Nork ezta gure errian Uztapideren entzuna? nola bertsotan ala gizatasunez ezen akatsik etzuna, ta anai maiteak orain eman zaidazute erantzuna, nork bete lezake berak lagatako utsuna? Gure erriak ezin ordaindu zuk beragatik egin dezuna. Artzazu orain gogo onez emen eskeintzen zaizuna ta jakin eibartarrak beti zurekin dituzuna.

- II -

Uztapiden sortu zan bein izar bat apartekua beste izar danen gainetik

argi egitekua; zerekin batera jaio zan doai izpi berezkua, zure bertsoak merezi luteke letra apain urrezkua. Ori litzake nere iritziz gauz justu ta legezkoa. Nere esan naia ez dakit dan egokia edo tajuzkoa, baiñan zurekin dira Bizkai ta Araba eta Gipuzkoa; [Naparr Araba eta Gipuzkoa; ta ezin alde batera utzi bidasoaz aruzkua. An ta emen beti izan zera pozik entzutekua. gizonki ta jator beteaz beti zure lekua. Orregatik zan omenaldi au zuri eskeintzekua ta azkenik iritxi da garaia alkar agurtzekua. Agur zere emazte maite ta agur Manuel biotzekua.

Gure gureak egiten ditugu Iturralderen bertsoak eta bijoakio gure agurra ere bide batez Z. Argiatik Manuel Olaizola, "Uztapide" zaharrari.

ITZIAR FESTETAN

Itziarko gazteak ez dira atzera begira egoten, nola lanean ala festan. Jaiak ere tajuz eratzten dituzte. Ez dituzte nolanañi antolatua "kofradixako" jaiak. Ona abuztuaren bostean ospatutakoen berri:

Goizeko amaiketari, Erri Meza.

Amabiterdian: Lasarte, Igarzabal, Egileor eta Gorrotxategi bertsolariak.

Arratsaldeko bostetan: "Os-karbi" abeslari taldea, Xabier Lete eta Lurdes Iriando.

Ondoren Endañeta bere ahalmenak erakusten. Bertsolariak bigarren saioa ta agurra. "Sakka"ren zezenak eta erromeria.

Baina ez ziren jai anek igandekoaz bakarrik amaitu. Ilaren seian, zazpian eta zortzian ere jai aundiak egin zituzten. Besteak beste Pantxo eta Pello abeslariak entzun ahal izan genien. Baita Lazcano eta Agirre bertsolariak ere.

DEMA SARIKETA AZKOITIAN

Ohitura dute azkoitiarrek urtero "Andremariz" dema sari-keta eratzeko. Abuztuaren 17a aukeratu dute aurten ortarako.

Iru saio izango dira: eguerdian, arratsaldean eta gauean.

"Sanders" deritzan arriarekin burrutakuta dira. Pixua: bi mila eta ehun kilo. Idirparearen pixua mila eta ehun kilotan jarri dute. Gehiago direnek kar-

ga artu behar arri gairean.

Bi itzairan laguntza izango du idipare bakoitzak. Nahi dituzten itzaiak aukeratzeko eskubidea dute idijabeek.

Amairu sari daude guztitara. Ogei mila pezetakoa da aurreneko saria. Amaseikoa bigarrena, amairukoa irugarrena. Eta onelaxe galgan galgan gutxiagotuz beste guztiak.

DANTZA SARIKETA AIAN

Aian dena ez da astodema eta ididema, beste gauza asko ere egiten da. Dantza sari-keta eratu dute abuztuaren 12rako, amalau urte arterainoko gazte-txoentzat.

Arratsaldeko seitan jokatuko da lehiaketa au.

Sariak: Lehenengoa, mila eta berrehun pezeta.

Bigarrena, mila pezeta. Irugarrena, zazpirehun eta berrogeita amar pezeta.

Laugarrena, bostehun pezeta. Bosgarrena, irurehun eta berrogeita amar pezeta.

ESTROPADAK GETARIAN

Abuztuaren 5ean jokatu ziren Getaria-Zarautz itsas ertzean. Ez zuten zereginik izan Hernani eta Donostiak Getariaren aurka. Oso motel egon zen Donostia, minutu bat eta ogei segundoren aldea kendu zion Getariak. Ontzi eskasagoan jokatu zutela ere aitortu beharra da go baina.

Berebiziko egualdia egin zuen Abuztuaren bosta. Aizerik ere ia batez. Jendea erruz. Ez genuen uste ainbeste jende bilduko zenik.

Ona markak: Getariak, 15, 16. Hernanik, 15, 54 - 7/10. Donostiak, 16, 36 - 8/10.

Erriko etxean banatu ziren sariak, estropadak amaitu eta andik iru ordu laurdenera.

AMABIRJINAK

Non ez da zerbait egiten Abuztuaren amabostez? Nonahi ospatzen dira egun ortan erriko jaiak. Oreindain, Aizarna, Azkoitia, Deba, Zarautz, Soraluze, Ondarru eta abar, festetan izango ditugu. Bada aukerarik.

Azkoitiarren izkuntzan esanik: "Ondo pasau Andramaijak".

MUTIOZABAL

Bertso Berriak

KOKTELAREN KONDAIRA

- 1 -

Bertso berritan aitatu egin nainukela, edari bat modakua sortua dutela, an Ipar-Amerikan du izena koktela, baiñan nik sagardoa naiago detela.

- 6 -

Azkenian aspertuta zegon ain nastua, auzoa bildu zun ta agindu prestua, «oillarra arkintzendunai ezker onaskua, sarizat emango diot alaben eskua».

- 2 -

Berreun bat urte koktela dutela sortua, erri txiki batian ikasi kontua, ostalari bat an zan oso famatua, saiatuko naiz agertzen oni gertatua.

- 7 -

Illabete igaro ta eguna iritxi, gazte bat azaldu zan oillarra ta guzi, eta nagusiari bera erakutsi, sari ederra eginik onela irabazi.

- 3 -

Alaba ta oillar bat zituen etxian, zein baño, zein ederrago askon iritxian, irrintzika egazia egun argitzian, ta alaba soñu jotzen alai bizi-zian.

- 8 -

Poztu ta ostalaria egerkera onekin, pentsatu zun ospatzea erri guziakin, izan zan jaialdia umorearekin, serbituak etxeko edari-onenakin.

- 4 -

Goiz batez konturatu egin zan jabea, bere tokin etzegola oillar dotorea, ez ote-zan azalduko egazti berea, bildurturik jarri zan nagusi trebea.

- 9 -

Serbitu zun alabak al zuen bezela, Wiski, Brandi ta abar nostu zitun bela, agertu zan zumua etzan ez motela, oillar isats koloreko lenengo koktela.

- 5 -

Bi edo iru egunetan billatzen zan saia, gure ostalaria etzegon lasaia, miatu zun etxia ta alboko zelaia, baiñan etzan ageri egazti alaia.

- 10 -

Irakurle oar batekin nai nuke bukatu, koktel batera, ez gero iñor konbidatu, gure Euskal Errian beti gogoratu, bazkari bat egiten da geio estimatu.

José Antonio Lazcano Donostia

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE TXUKUNKETARAKOAK

URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkiñak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n Zumalakarregi, 7ºn

BAR - RESTAURANTE

AZURRERA

HAUXE DUZU ZURE JATETXEA

Urbietan, 12

Urrut.: 411528 - 412578

DONOSTIAN

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

ZERUKO ARGIA

SALTZEN DA:

ELGOIBAR

M. Gorostiza

EIBAR

Angera
Markina
Iriando
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amena
Uraul
Urizar
Siglo XX

Oyal s.a.

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

ELIZAREN BERRI

Brasil ipar-ekialdeko gotzaien dokumentua

Balitzake zer esanik franko Ameriketako lurralde handi horretaz (25 miloi biztanle ditu). Gaurko honetan, haatik, titulu aipaturiko dokumentuari lotuko naitzaio. Jakina, ideia nagusienak besterik ez dut bilduko. Testo osoa nahi lukeenak, jo beza zuzenbide honetara: DIAL, Association pour la Diffusion de l'Informations sur l'Amerique latine, 170, bd du Montparnasse, 75014. Paris. Dakidanez, ez da oraino agertu gazteleraz, gure inguruan bederen.

Argitalpen horren okasioa, "Giza eskubideen Deklarazio orokorraren" 25. urteburua eta "Pacem in terris" enziklikaren 10. urteburua izan da. Hain zuzen, Brasilgo Gotzai Elkarte Nazionalak joan den martxoaren 15ean okasio berdinez ageri bat atera zuen. Eta geroztik, eskualdeka, zenbait ageri atera dira Brasilen, bertako egoera larriaren ezagugarri.

Komentatza, hobeto esan laburtzera, gazaen hau, Brasilgo ipar-ekialdeko Elizakoa da, maiatzaren 6an argitara emana; 13 gotzaiak (tartean Helder Camara eta Fragoso) eta 5 erlijioso buruzagiek izenpetua. Atera orduko, polizia jaso egin zuen. Esan bezala, laburpen bat emanen dut, gehienetan dokumentu beraren hitzak erabilaz. Titulua bera, interesgarria da: "Ene herriaren intziria entzun dut".

EGIAZKO ASKAPENA

1. Falta ez zitekeen, dokumentua argitaratu ematea ziritua hasten da. "Ene herriaren mixeria ikusi dut, eta zapaltzaileek aterazten dioten intziria entzun dut. Bai, ezagutzen dut beraren larria" (Exodo 3, 7).

Hitz horiek —diote gotzaiak— gure sendimendu beraren adierazle dira. Egiazko askapenaren atzetik dabilenaren alde jartzera bultzatzen gaitu gure herriaren egoera larriak.

Jainkoaren hitzaren argitan aztertu nahi ditugu gure herriak bizi dituen egintza eta gertaerak. Egintza eta gertaera horiek, bestalde, zinezko analisia batez frogaturik dira.

Ezin gera gintzeko hitz zuri hutsetan, zentzurik gabekoetan, herriaren bizitzarekin zerikusirik ez luketenetan.

Gure ustez, maila izpiritualak gizakia oso-osoan biltzen du. Horrez gero, artzai bezala, ekonomia, politika eta gizarte arazoak egiaz dagozkigu, gizakiari eta Jainkoari dagozkion neurrian.

Herriaren alde behar dugu atera, ebanjelioari leial izatekoan. Herriaren askapenaren alde.

"Askapenaren zerbitzari bezala, guztien gain geure konbertsio jarraikiari lotu behar gaitzazkie, hobekiago zerbitzeko-

tan. Ipar-ekialdeko gizakiaren eskakizuna onartu behar dugu: dehadar bizian askapen-zerbitzu hori eskatzen digun hori...".

Bere askapen bidean, gizaki horrek oztopo hau nabari du: zenbaiten irabazi beharra. Horretarako, ikusten du, estadistika eta datuak maneiatu egiten direla, "ezarriko indarkeria" zuzituzkotan.

Horrez gero, lehenik, dato objektiboki lotuko gaitzazkie, gure irizpidea arinegi emana denik inork uste ez dezan.

JENDEAREN ERREALITATEA

2.—Ipar-ekialdeko jendearen errealitatea. Erakunde ofiziale-tatik ateratako berrien arauera, palduriko lurraldea dela, mixerian bizi dela. Eta Gobernuak ez dagiela ezer egoera hori hobegotzekotan.

Hona Gotzaiak dituzten dato batzuk: buruko errenta, ipar-ekialdean, 200 dolarreketa da urteko (Brasil osoari begira erdia, eta Sao Paulo Estadukoari begira 3/1). Langabe % 23 dago. Etxebizitza faltan 2,3 miloi, 1970an % 60 analabeto zen...

Nondik nora egoera hori? Industrializazio ezatik; dirua hegaldara eman bait da horrela. Bienbitartean, jendeari menpetasun eta aitakeria giroan eutsi nahi izan zaito, Eliza bera ere horretan errudun izan delarik.

Desarrollopearen kontrako borroka 1950ean ekin zitzaion; batez ere, 1959an, SUDENE delakoa sortuaz. Bi helburu zituen erakunde horrek: industria bertan ezartzea eta nekazaritza aldatzea. Baina, laster asko, hegoak moztu zizkion Gobernuak SUDENE delakoari; guztia, SUDENE-n asmorik komeni ez zitzaizkion kanpotikako kapitalari. Eta lurralde honen desarrolloa bertanbera edo gelditu da.


Aginte eragilea (ejekutiboa) aginte absoluto bihurtu da. Alderdi politikoek ez dute zer eginik. Expresibideak ebaki egin dira. Periodiko, batzar, sindikatu, huelga eskubideak kendu egin dira. Bizitza pribatua bera ere ez dago libre: polizia sarturik dago zirritu guztietan. Tortura eta hilketak egunoroko ogi egin dira.

Egoera honen aurrean galdera hau dator burura...

MIRAKULUA

3.—Zelako brasildar mirakulu? Ekonomia mailan, Brasilgo historian izan den abiada handiaren ari da arrotz kapitala sartzen. Erraztasun guztiak ematen zaizkio. Herri-dirua ere horren laguntzarako ipiniaz.

Batez ere 1968az gero, Brasilek ekonomia hazkunde handia izan du. Hori ematen da egungo gobernuaren politikaren zurigarriztat.



"Ene herriaren mixeria ikusi dut..."

Baina, hor ageri dena, hauxe da: desarroilo hori beharrean ez dauden aldeko dela. Gainera, mixerian dauden bizkar egiten da desarroilo hori. 1960-ti 1970ra, hona zer gertatu den: Brasilgo jendetza osoaren %20k, 1960an, errenta nazionalaren %54,4 zuen bere eskutan, eta 1970an errenta nazionalaren %64,1 zuen. Gainerako %80a berriz, %45,5tik %36,8ra jaitsi zen. 1961tik 1970ora, egiazko jorrala beharatu egin da, eta ez gutxi: %38,3 hain zuzen. Denbora berarean, buruko egiazko produktoren emendioa (handitzea) %25,6 izan da. Beraz, "brasildar mirakulu" delakoa toki ederrean gelditzen da! Gobernuak egin duena, hauxe izan da: gutxieneko jorrala arautu, eta langilearen etorki zati bat ekonomia-hazkunde horretaz gizen-tzen ari direnei eman.

Gutxieneko jorrala dutenen zoria horrelakoa baldin bada, askoz okerragoa da inongo jorralik ez dutenena, edota gutxi-nekoz behetik dutenena.

Sistemaren aldeleek, errenta nazionala banatzen hasi behar ez izateko, arrazoi hau ateratzen dute: "banatzen hasi baino lehen, pastela hazi egin behar da". Baina gertatzen dena, arrotz kapitalak produzitzen duena, kontsumitu egin behar dela. Eta kontsumitzeko herriak dirurik ez du. Orduan hau gertatzen da: arrotz kapital horrek produkzioz gintza finera jotzen duela, jende aberatsak kontsumi dezakeenera. Horrela, pro-

dukzioa bera ere, ez da inolaz ere herriari dagokiona.

Horrela, klaseen arteko lezea areagotzen doa. Eta Gobernuak da eragile bide horretan.

Mixeria hori estaltzekotan, futbolari eta besteri, aberri-mistika haizea eman nahi zaito. Baina herria ezin lotarazi dute. Ongi jabetzen da herria "ekonomia mirakulu"aren ondorioetaz. Askatasun falta, indarkeria, errepresioa, zuzengabekeria, herria gero eta behartsuago egitea, interes nazionalen alienazioa: hori guztia ez daiteke izan Brasilek bere bide historikoa aurkitu duelako seinale.

GERO ETA BAZTERTUAGO

4.—Gero eta baztertuago. Sistema horren ondorioak gero eta garbiago ageri dira ipar-ekialdean Ekonomia eta gizarte egiturak arraz zaharkituak direla bide.

Bertako aberastasunen explotazioa bertako jendearen beharrik kontuan hartu gabe egin izan da hasieratik.

Egungo eboluzioarekin, hori ez da batera aldatu. Industrializazioa esate baterako. Produkzioa ez da herriaren beharretarako; aisa bizi direnentzat baizik.

Mixeraren gako honetan dago: lurra eta kapitala gutxi batzuen eskutan izatean.

(Dokumentuak, ondoren, nekazarien egoera latza kontatzen du). Ez zaito nekazariari beste biderik gelditzen: edo bertan ja-

rraitu lehenean, edo hurira joan, han ere eskulan merke bilakatzekotan.

Funtsean, izan ere, huriko langilearen egoera ere nekazariaren antzekoa bait da.

BUKAERA

5.—Konklusioa. Egoera honen aurrean ezin isildu da Eliza.

Badakigu, nahi ez dutenek ez digutela ulertuko. Statu quo-ren (bertan goxoren) aldeko dira horrelakoak.

Horientzat, kristau fedea, Jainkoarekiko erlazio huts da, ekintza politikoarekin eta sozian ageri da: ipar-ekialdea zalarekin zerikusirik ez duena. Erlijioa gauza pribatutzat daukate. Beren interesen alde, tresna ideologiko bezala erabiltzen dute.

Guk, Eliza ezin hartu dugu mundutik etenik legokeen errealitate bezala. Munduan zertzen da salbazioa.

Hörregatik, sakramenduez gain, giza errealitateak ere salbazio bide izan daitezke, Jainkoarekin elkartzeko bide.

Salbazioa ezin definitu da munduaz kanpoko errealitate bezala. Hemen bertan hasten da salbazioa. "Oraino" burutu gabeko betiko bizitza, "jadanik" emana digu Jainkoaren Semeak.

Gaurko agintari esklabuzaleak antzinako Faraon hura bezala dira: ez dituzte haintzat hartu nahi herriaren borrokan ageri diren salbazio baliokak. Ez dute ikusi nahi Jainkoaren indarra behartuaren indar bizian.

Egia esateko, Elizak ez du beti bere egitekoa bete: bere igerletza, bere ebanjeliozko eginkizuna. Baina, Jainkoaren hitza egunoro ari zaito belarrira, damu dadin, eta "antzinako maitasunera" itzul dadin.

Hona beraz gure aitortpena: Brasilgo ekonomia eta gizarte egiturak zapaltzaileak dira. Arrotz kapitalismoaren zerbitzari. Egoera hori ez da, ez gizakor ez kristau. Aberatsak aberatsago, behartsuak behartsuago bilakatzen dira.

Pobretasun hori, naturaleza-ren pobretasunetik ez, baina giza bihurriketatik dator.

Nazioarteko kapitalismoa, berari dagokion kultura ezartzen ari da mundu zabalean. Zapalkuntza estaltzeko moduko kultura ezarri nahian.

Klase gizarte hori, klase borrokara doa ezinbestean. Zapaltzaileek ez dute horrelakorik ikusi nahi. Baina azpian daudenak gero eta argiagotzen ari dira.

Mendeko klaseak ez du beste irtenbiderik: produkzio bideen jabetasunera doan bideari ekin eta eutsi.

Ebanjelioak honetara bultzatzen gaitu: gizarte berri bat egitera.

AMUNSA

DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz, 44

BILRAO



LIBURUAK

"UMETROAK"

IRAKU-IDADKETA LIBURUA

Ona emen txikitxoentzat liburuxka polit eta apaiña. Ona, askorentzat guztiz arrigarri gertatuko dan liburuxka. Beste munduko gauzarik ez daraman arren, alderdi asko ditu oso bitxiak, oi ez bezelakoak.

Zein adinetako umeentzat? Bost urtetik seirako aurrentzat egina da. Urte batez edo biz ikasketak oinarriak artzen ikastolan ibilli diranentzat, ain zuzen ere.

Eztabaida luzeak izan dira arazo oni buruz: zein da adinik egokiena, umetxoak irakurtzen asteko? Sei urte inguru uste zuten zenbaitek. Adibidez, Virgil Dickinson'ek, Morphett'ek eta Washburne'k, adifnez sei urteko izatea baiño areago eskatzen zuten: buruz, adimenez, eldutasunez sei urteko bear zuala aurrek, irakurtzen asteko.

Baiña jaun auek aurrari berari bakarrik begiratzen zioten, agian; eta etzuten aintzakotzat artu irakurtzen irakasteko ERA. Aurraren adimena eta eldutasuna, IRAKASKERA egokiaz lotzen diranean, sei urte baiño leenago ere gai da edozein umetxo irakurketa ikasten asteko, Carroll'ek dionez.

Eta gauza bera ikusten dute ikastoletan ari diran Anderfioek ere: 4 urtetik 5'erako maillan eta Ikastaro osoaren buruan, kalterik gabe ta erraz asten dirala aurrak irakurketa eta idazketa ikasten; asiera besterik ez baiña. Gero 5'etik 6'ra ikastaroan aurrerapen aundia egiten dute oso erraz; egoki lagunduz eta errazago.

—oOo—

Esan dugun asiera oro maillaka egitekoa da. Izki aotsdunak edo bokalak irakasten dizkiete lenen; eta auek ere apurka, aldi luzearen buruan. Entzun eta ikusiaz batera, beraiek ere esan eta egiaz. Eta izki bakoitza bere soinketaz lagunduta. Geroago, berriz, txotxez tajutzen dituzte izkiak.

Aurrerako ere alderdi on eta erraztasun aundiak eskeintzen dizkie umetxoeri TXOTXAK erabiltzeak. Buru-lan aundia eskatzen die txikitxoeri irakur-idazketa ikasteak, aspaldi ikasi genduanori ala iruditzen ez ba'zaigu ere. Orregatik eta erraz-bide geiago eman bear zaizkie, beraz, gure txikiari.

Izki eten edo izki nagusiak ikasten dituzte nekerik gutxienaz, Ferruccio Deva irakasle-idazleak aitortzen duenez. Eta izki auek —bateraz ere irakur-idazketak, biak batera doazenean— bestelakoak baiño errazagoak dira egiteko edo idazteko. Ontan, berriz, oso egokiak gertatzen dira TXOTXAK: eskuentzat zailtasun gutxiago, irakur-idazketan burua lantzeko erraztasun geiago.

Bestalde, aurrerentzat garrantzi aundia du ikumenak bere ikasketarako. Ortan ere egoki gertatzen zaizkio txotxak, izkiak ikutuaz eta eskukatuaz egiten ditualako.

Ikumena esan dugunez, arira datoz Friedrich Steinwaachs irakas-

Gaztañaga'k

ONDARRUKO HERRI-IKASTOLAN

E.G.B.-rako irakasleak behar dira.

Deitu goizetik 24 urrutizkiñera

edo idatzi «EGUNSENTIA» Cooperativa de Enseñanza

Cruceño 9

ONDARRURA

SASIOLA ZALEEN ELKARTE BERRIA

1517 urtean eraiki zen abadetegi zaharra
berritu asmoz

DEIA

Uztailaren 29an. Sasiolan ginen. Denboraz jakinarazi ziguten igande hartan Sasiolako Abadetegi zaharrean eratzeke zen biltzarraz, eta bertara abiatu ginen goizeko hamarretan eta erdietan, adiarazitako ordu berean, alegia. Gu heldu bezain laster heldu zen Debako erretoea ere, Aita Arrinda, harako biltzarren eratzaille eta arduraduna.

Ondoren, pixkanaka pixkanaka hasi zen jende mordoak bat azaltzen, ez gehiegirik egia esan, gutzira ere berrogei inguru, Sasiola bailadako baserriak gehien bat. Debatzarrek poto egin zuten, tamalez, igande goizeko ondartzat Sasiolako horma zaharrak baino interesgarriago, nonbait.

Jendea biltzen ari zen artean, Don Anastasiok erakutsi zigun elizbarrua. Hango egoera tristea ez dago hitz kozkorretan azaltzerik. Teilatua guztiz zulatua, habeak kili-koi noiz eroriko. Hilobiak erdi irekiak, aldarea izorratua, intxaurreluzko erretabla barrokoan txoriak kabi. Sandu irudiak mantxu, sudur-motz, erretabla kanto zenbait, ertz batetan umezurtz bildurik.

Sasoi batetan San Frantzisko Abadetegi ospetsu izan zena (gero herriak San Antoniotzat bihurtua) gain behera dator azken ehun urteetan. Zenbait mintzo da azken bolada honetan haren egoera larriaz. Zerbait egin beharra omen dago, eta egitekotan lehen bait lehen, gero alferrik gerta ez dadin... Nork egin ordea?

BILTZARRA

Eliz-atarian meza entzun ondoren, Aita Arrindak ekin zion bilerrari meza ospatu toki berean. Hitz gutitan azaldu zuten arazoa, hots:

1.—Sasiolako Abadetegia gain behera dator.

2.—Erretabla da bertako gauzarik baliotsuena, eta, hain zuzen, zorionez, ontxoan dagoena. Jakitunek diotenez, urte pare bat irau dezake usteldu edota erabat alferrik galdu gabe.

3.—Erretabloari dagokionez soilik, izan da azken urteotan zenbait asmo. Donostiara eraman nahi izan da, Santa Maria elizara nahiz San Telmo Museora. Bai eta gero, Arantzazura ere.

4.—Honetaz arduratu direnek edota Donostiara eraman asmoz ihardun dutenek ez dute inoiz Deba herriarekin ezertarako kontatu, are gutiago Sasiola bailadakoekin.

5.—Elizaren jabetasuna. Norena da? Lehen frantziskotarrena, noski. Baina Mendizabalek eragin zuten desamortizazioaren ondoren (XIX mende erdi aldean ez jakin, ordea. Dena den, azken urteetan Debako Parrokia eta Sasiolako baserri-

rek San Antonio egunez (Ekainaren, 13an.) eta beste zenbaitetan hartaz baliatu izan diren bakoitzean ez du inork inolazko jabetasunik erakutsi.

Jakina denez, ordea, aldameneko konbentu zaharra elgoibartar batek erosi zuen. Nori erosi zion?

6.—Sasiola zaleen elkarte bat edo horrelako zerbait sortu beharra, arazo gutzi hautaz saia eta ardura dadin.

ELKARRIZKETA

Ondaren elkarrizketa bat sortu zen. Zenbait zioen erretabla dela baliozkoena eta Donostiara edo norabait eraman beharra dagoela. Beste zenbait zioen, aldiz, hori elar, baina inolaz ere sasiolatarraren. Erretabla ateratzen bada, gainera, eliza behin betiko gain behera etorriko dela.

Beste batek dio, erakunde ofizialen bat erretabla eramateko prest dagoela, eta horren ordez ermita berri bat egiteko. Hauzia ez dela berria egitea erantzuten zaio, zaharra baliaraztea baizik.

Hauzia, behingoz, honetan datza: Erretabloak Sasiolan gelditu behar badu eliza konpondu beharra dago nahi eta nahi ez. Eliza garau hori eraberritzea eta gero mantain ahal izateko ahalmenik ba ahal dago Sasiolan? Jira eta buelta, hontaz eta hartaz zenbait erabaki hartzen da.

ERABAKIAK

1.—Erretabloak Sasiolan jarraitu behar duela, eta eliza ahal den eta behar den neurrian eraberritu.

2.—Sasiola zaleen elkarte bat sortu, diru-laguntza lort ahal izateko. Elkarte honen baitan batzorde bat izendatu, ekintzak erakarri-

ko dituen lan eta arazoak zuzen ditzan.

3.—Sasiola Zaleen Elkarte honetan parte hartuko dutenek, behingoz 1.000,— ptako saria eskainiko dute. Mila peseta emanen litzuzketen mila bazkide nahi lizateke bialatu.

Erabaki hauek onartzen dituzte, bai eta izenak eman ere, honako baserri hauek: "Sindika", "Sasiola", "Antzuitza-goikoa", "Antzuitza-bekoa", "Mirapros", "Goikoetxe", "Istiña", "Antzondo" eta "Artzabal". Hauz gainera, beste bostek eskaintzen du bere laguntza eta ardura.

Batzordea, berriz, honako hauek osatuko dute: Sasiola bailadaren izenean, "Sindika", "Mirapros" eta "Artzabal" baserrikoek. Deba herriaren izenean, berriz, Migel Iriondo jaunak, Parrokiako ordezko batek, eta Udaletxeko ordezko batek. Horrez gainera, beste debatar bat ere nahi lizateke.

AZKEN HITZA

Sasiolako Abadetegi zahararen egoera erabat larri da, bai. Honela diote arte-zale guztiek, jakintsuek, agintariak, arduradunek, Donostiako eta Madrilko kultur-elkarteek eta beste amaitxok.

Horrenbeste hiletta eta azkenean herri xumeak hartu behar izan ditu neurriak. Honetaz, beste hainbatetan bezalaxe, jendea mintzatu da merezi ote duen galdatuz, bihozka da hutsa ez ote den, zertarako eta horrelako xoxokeria ugari.

Edozein gauzaren garrantzia eta balioa ezagut ahal izateko, hartaz jabetzeko, hura bizi behar da, hura sentitu, haren hutsunea nabaritu. Zergatik eta zertarako galderek herri deserrotuetan bakarrik dute leku.

Luis A. Aranberri



Sasiolako San Frantzisko eliza

EUSKALTZAINDIK

Euskal Herriari
Laguntza dela

Euskaltzaindiak argitaratu berria duen liburuaren azala. (Ikus lehenengo orrialdea)

EUSKALTZAINDIA

UZTAILEKO BATZARREAK

Joan den uztaileko 27an Euskaltzaindiak bi batzarre egin zituen Donostian: bata berezia eta bestea arrunta, goiz-arratsaldetan, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

Goizeko bilkura berezian aditz laguntzaile batuari birrespena (ratifikazioa) eman zitzaion. Beraz, oso-osoko onartzea izan du lan honek.

Bilkura berean eskola-hiztegiaren 4.5 eta 6. hitz-zerrendei behin-behineko onartzea eman zitzaion.

Batzarre arruntan, berriz, bilkura berezian egiten kontu eman zen. Eta har-emanen saileko beste zenbait gauzaren artean, honako gai hauek erabili ziren:

Donostiako Udalak urteko diru-laguntza ematea erabaki delako berri pozgarria eman zen.

Juan San Martin idazkari jaunak bere txostena irakurri zuen, gai honi buruz: "Usa leku-izena eta bere esanahia".

Josu Oregi euskaltzain laguntzaileak, berriz, beste txosten bat irakurri zuen gai hontaz: "Leizarraga, Bonaparte eta beste".

Arrasaten uztailaren 7an, euskal irakasle titulua lortzeko egindako etsaminen berri eman zen. Bigarren deia egiten da urriaren 6rako, toki berean, arratsaldeko 4etan.

Eusebio Maria Azkue lekeitiar olerkariaren omenaldiaz zer-ikusit dute zenbait pundun aztertu ziren.

(Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren Agiria)

DEBA

TXOKO ALAI

ESKU BEREZIA KAXUELATARAKO
TA
OGI-ARTEKO GOXOAK ONTZEKO
S. Roke kalea, 15
— DEBA —

Xabier Bilbao

Gizon, emakume, zer nahi zenduke erosi?
Nire dendatik ezertxo gabe aterako ez zerala aurrez esaten dizuet
Etorri nahi dezutenean

Lertsundi, 4 — DEBA — Urrutizkiña: 60 11 81

GALARRAGA

Philips ezin obeak
Elektro-etxerado tresnetan aukera handia. Er erosi etxe au ikusi gabe.
Igeltsero-lanak
Gure zorionak Sandroketan

Lertsundi, 4 — DEBA — Urrut.: 601251 - 601078

Hostal MONREAL Kafeteri

JOSE EGAÑA ERAÑA

RESTAURANTE ETA KALLETXEA — ERRIKO JAIETAN GURE AGURRA

Urrutizkiñak: 601244 - 601245
— DEBA —

BURU - ZURI

JATETXE KAFETXE EZAGUNA

Arratsaldeko jaki onenak-Noiz-nairako mokau goxoak

Lertsundi kalea, 27 — DEBA — Urrutizkiña: 60 10 34

AINHOA

Ondo jantzi nai al zera
Zoaz «Ainhua» dendara
Janzki apañak
Ondo egina

JANZKI EGINAK
S. Roke Kaleko 12'an
DEBA'N

Urrutizkiña: 60 10 94
SAN ROKE JAIETAN ZORION OSOA OPA DIZUTE

MUXIKA

Jaki ta edari mota gurietakoak sal-
tzen dira denda ontan. «Sandroke»
jaietan gure zorion agurra!

Lertsundi kalea, 15
Urrutizkiña: 60 10 63

— DEBA —

ALEJO

Elektro-etxerakoak, eskeingarrietan,
aukera — Ontzi ta ferreteria
Bumigailuak — Ongi etorriak zai-
tezte gure errira!

Lertsundi Kalea, 16
Urrutizkiña: 60 11 57

— DEBA —

GARBI

Drogeria-denda au eskeingarrri
ederrez ondo ornitua dago. Usai
gozotan aukera ona. Erriko
jaietan gogoan izan.

Portu Kalea, 8
Urrutizkiña: 60 10 61

— DEBA —

LABATAI

Kafe-etxea, gosariak, askariak, mokauak. — Geldoki aurrean.
Etxe onek bere bezero guzietan jai alaiak opa diskie.

Urrutizkiña: 60 12 27
— DEBA —

AITOR

Kafetxea. Gozoopil eta Mokau gozoak
Lertsundi, 14 ta 16

Sandroke jaietan zuen zai
— DEBA —

LETE'AR JUAN JOSE S. A.

Egur-zulaketan, naiz makiña edo eskuz, arkituko dituzun
erremientarik bikañenak.

«YON» dute izena ta Deba'n egiñak dira
— DEBA —

Carrocerias IRIGARRE

Automobillen txapa-lan guztiak-pintaketak ere egiten ditugu
Konpontzeak eta beste edozer lan
Erriko pestak ditugula-ta ZORION-AGURRA guzietan
Gruaren zerbitzuak

Astillero, 3

Urrutizkiña: 60 10 52

— DEBA —

ELEKTRIKA SAGARNA

TXIMIST-ARGI LANAK

TRESNARIK ONENAK KELBINATOR - VANGUARD - AEG

Urrutizkiña: 60 11 87


— DEBA —

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA
Dei honi jarraituz bazatoz
zure erlojua KANARIAS bertan
baño merkeago erosiko duzu

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI



AZKOITIA

ARROZTEGIA

JOSE MARIA ZENDOIA

«ALDAKO»

Julio Urkijo, z/g.

Urrutizkiña: 81 15 69

— AZKOITIA —

LAGUN-ARTEA KOOPERATIVA

OE-ERREDIZETAN BEREZIAK

Tercio Lacar, 6

Urrutizkiña: 81 14 57

— AZKOITIA —

“BIYOK” Tximist Indarra

AURRENTZAKO EUNGITZAK

Kale Nagusia, 17

Urrutizkiña: 81 17 60

— AZKOITIA —


AZKOITI-KO INDUSTRI ALKARGUNTA

AZAL-GAIN ZAPALAK
ZUZENTZEKO MAKINAK
GUZITARAKO
AGIN-BILTZAK

BURNI-URTZA
URDINABARRA

Industria Auzoan
Urrutizkiña: 81 17 72

— AZKOITIA —



«URASA» LANTEGIAK

TORNUGINTZA — BILBIL-FIRIFARA TA KULUNKARI LANTEGIA

Julio Urkijo Ttorera, z/g.

Urrutizkiña: 81 14 52

— AZKOITIA —

«MONISTROL»

MARKESAREN

GELAKO ARDO TA TXANPAÑAK

Gipuzkoa-rako Ordezkaría

Juan Arregi

Urrutizkiña: 81 17 13

— AZKOITIA —

IZARRAITZ EGINTZAK


BEREBILLEZKO TORNUAK ETA URKETA

METALENTZAKO ZERRAK

Urrutizkiña: 81 16 43

— AZKOITIA —

Acerias y Forjas de Azcoitia, S. A.



Zumarraga bibein Urrutizkiña 81 12 00

AZKOITIA

IBARMIA, S. A.

MEKANIKO EGINTZAK — 30-tik 60 MILIMETROKO, ZUNTOI
TARATULUEN EGINTZA, OSKIDUNENAK ETA LANGINTZARAKO BANAKOENAK

Zumarraga bidean

Urrutizkiña: 81 21 16-78

Suministros industriales “IRECO”

Joakin Beunza, 54

V. ETXEBERRIA - A. KOMENZANA
GORDAIRU ETA OFIZINAK

— IRUÑA —

Marques San Esteban, 23
Hernan Cortes, 28
San Martin

G I J O N
Z A R A G O Z A
J U L E N R O M A R A T E
— A Z K O I T I A N —

Urrutizkiña: 35 74 40
Urrutizkiña: 22 78 37
Urrutizkiña: 81 14 25

XUBI, S. L.

MAKINADUN LANTEGIAK
OSKADURA LANTZEAK-ENGRANAJEAK

Industria Auzoan
Suministros industriales

Urrutizkiña: 81 18 59
— AZKOITIA —

GURE HERRIKO GAZTERIA

Zeruko Argiak eskeintzen digun tokia aprobetxatuaz gure herriko gazteriaren egoerari buruz zerbait idaztera gatozkizue. Gaia zabala eta alderdi bat baino gehiagotik ikutzeko modukoa da. Hala ere guk ez dugu estudio sakonik emango, gure iritzi batzuk besterik ez ditugu azalduko.

Gure herriko gazteek zer egiten dute? Azkoitian gazte asko da. Kultura alderditik zerbait egin nahi eta egiten dutenak bi talde dira. Gazteentzat GAZTEDI izenekoa eta gazteentzat berriz KIMU elkarteak. Bi elkarte hauek beren aldetik gazteen artean giroa suspertzen ahaleginak egiten dituzte. Hala eta guztiz ere, herrian hainbat gazte izanik, lehen aipatutako elkarte hauek bien artean ehunda hogeitazko edo sozio inguru besterik ez dute. Honekin ez dugu esan nahi gainontzeko gazte guztiak gure herriko arazoez kezkatuko ez direnik, bide ezberdinak egonik, agian bakoitza bere aldetik erantzun bat ematen saiatuko da. Hala ere, beldur gara ez ote diren gehienak txikiteoan eta kalean gora eta behera ibiltzearekin konformatzen. Izan ere askoz errexagoa baita.

Bestalde gazte langile eta gazte ikasleen arteko ezberdintasun eta elkartasunik eza nabari da.

Honen arrazoiak ikasketak egiten ari diren gazteak hemezortzi urtez gero herriatik kanpora irten beharra dutelako dela derizkiogu. Horrela, urtearen zatirik handiena, herriatik at pasatu eta etortzean, beren kidekoekin, hau da, beste ikasleekin ibiltzeko joera dute eta ez dira herrian lanean diharduten gazteekin ibili eta elkartzen. Era horretara batak eta besteak ez duten elkarren arazoak berri gehiegirik izaten eta hor gabilta bakoitza alderdi banatanik.

Beste zenbait gauza ere esan ditekete baina gaurkoz utzi eta urteko baterako lagako ditugu.

Beraz, labur esan, Azkoitian gazteria kezkatu bat badugula derizkiogu, eta bestalde, lotan dauden eta esnatu behar diren beste pilo bat ere bai.

Ea horrela gertatzen, bakoitzak geure aldetik zerbait ipintzen saiatzen garen, denok batasun batean gazte euskaldun bezala jokatzeko hasien garen, badugu eta garia.

K.A.B.I.

Ikastola gure herrian

Euskal Herriko herri gehienetan bezala, gurean ere badugu ikastola. Eta bestetan bezelatsu, orain dela hiru urte t'erdia herri ekintza bat zela bide sortua.

Hasieran haur gutti bazituen ere, urtean baino urtean gehiagotuz joan ziren eta egun, berrehunda berrogeitarreko haur multzoa du.

Hirutik sei urtetara bitartekoak herrian bertan eta seitek gorakoak Loiolan, izan ere Zestua eta Azpeitiarekin batera, Urola Ibarreko Ikastola Elkarteak osatzen duena bait da gure herria ere.

Bere bizitza laburrean hartu duen abiadak ekarri dizkion buruhauste eta arazoak poliki poliki gaindituaz doa gure ikastola.

Diru alderditik era batera edo bestera, herri guziak laguntzen duela esan daiteke. Era horretara andereñoen lan-sari eta ikastolan beharrezko diren jolas eta gaurko pedagogiak eskatzen duen material egokia lortzea posible eginaz.

Pedagogia aipatu dugunez gero, ikastolan erabiltzen denaz, gurasoak oso gustora daudela aitortu beharra dugu. Haurrei lehen ez bezala pentsarazten eta gauzen zergatia ongi ulertzen irakasten bait zaie


eta hori da beharrezkoena, ez guk ikasi genduen eran ikastea, ezer edo ezer gutti ulertuaz alegia.

Bestalde gurasoekin egiten diren bilerak direla bide, hauek, erakusketako eraberritzeaz jabetzeko ahaleginak egiten dira eta egia esan gehienak dira arazo hontaz kezkatzen direnak. Baina gehienak izate-tik denak izatera iritxi behar gure haurrei heziketa oso bat eman nahi izanez gero. Egokia ez ezik behar beharrezkoa bait da ikastolak eta gurasoak elkarren berri jakitiaz lan egitea, hots andereño eta gurasoen arteko lotura bat behar du, haurrak behar bezala hezi ahal izateko.

Esan beharrik ez, ikastolaren ekintza hau aurrera eramateko mila eragozpen izan direla, diru alderdikoak eta bestelakoak ere bai. Hala ere, herriaren laguntza eta batzordea osatzen duten guraso, laguntzaile eta andereñoen ahaleginei esker gero eta tinkoago aurrera jarraitzeko bidean ikusten dugu gure ikastola. Hala nahi dugu behintzat eta horrela gerta dedin gure laguntza eskaini dizaiogun.

TXINPARTAK

AZKOITIA



Azkoitiko Herriaren zati bat

Elkarteak gure herrian

Anitz Elkarte bada gure herrian, eta gehienek dute beren egitekoa. «Beti Poz» elkarteak, pelota lehiaketak eratuaz, pelotari berriak sortzen saiatzen da. «Umore-Onak» haurtxoen danborrada eratzten du urtero. «Mendizaleak», zahar eta gazteentzat ibilaldiak eta akanpadak taxutzen dihardu. «Kimuk» hitzaldi eta ibilaldien bidez kultur alorrean zerbait egin nahi luke, berdin «Gaztedik» ere.

Ikus dezakegun bakoitzak bere sailean badu egitekoa eta egin ere egiten du. Ekintza hoiak ordea mugatuak gelditzen dira, hots taldetxo batzuei bakarrik erantzuten diete, adibidez, pelotazale direnei «Beti-Pozek» eratzten dituen txapelketak erantzungo die, «Kimun» prestatzen diren hitzaldiekin ere berdin gertatzen dela esanen genduke. Hau orrela izatea ez da harritzekoa, zeharo normala baizik.

Badira ordea sail hoietatik at majinabat egiteko, herri osoarentzat beharrezkoak eta mesdegarriak izanen direnak, eta hoiak Elkarte guziak bat eginik aurrera ateratzea litzake xoragarriena. Behar bada ez da aixa izango nahi hori lortzea, lana egitea eskatzen

bait dute orrelako eraketek, eta askoz errezago da Elkarte bakoitzak bere ekintzatxoak aurrera ateratzea eta urtea afari goxoak egiten igarotzea. Ongi dago noiz-behinka afariak egitea, baina baita burua pixka bat nekatzera ere. Gure artean ditugun beharrak ikusiaz, ekintzak taxutuz joatea, honek izan behar luke gure Elkarten helburua.

Igaro zen urtean (denok dakigu) zerbait egin zen eta arras baikorra atera ere Elkarte guziak bat eginik eratu zuten Kultur Aste hura. Zahar eta gazte denak saiatu bai ziren astea aurrera ateratzen. Aski kostatutakoa izan zen bainan merezi zuen.

Azkoitian badago sena, eta sena hori indartzeko eta eraberritzeko, interesgarria litzake ELKARTE denak naturik, zenbait ekintza urte guztirako prestatzea.

Elkarteak honela jokatuz gero, hau da, batetik beren sailetan eta bestetik herri guzientzat izanen diren ekintzak taxutuaz, beste kukurruku batek joko luke gure ingurumarian. Eta benetan, bada oraindik dagoen kukurruku soina aldatzeko premia.

TXINPARTAK



Azkoitiko ikastola

AZKOITIAN EUSKARA

Begira. Ezpairik gabe Euskal Herri osoan euskeraz gehientsuenik hitzegiten den herria Azkoitia dugu. Kalean besterik ez da entzuten (badira gazte txoro batzuk gaztelaniaz dihardutenak) etxetan zer esanik ez, lantokietan berdin.

Begirada orokor bat boteaz gero, egun oraindik euskara dugu nagusi, esan dut euskara erabiltzen dugula erabat. Hau zeharo onuragarri da guretzat, baina hitzegitea bakarrik ez dugu aski, zeren idazteko eta irakurtzeko gai ez bagara ez dugu deus halio eta ez gara sekulan gure hizkuntzaren jabe izanen.

Arazo hau gainditzeko, alfabetatze ikastaroak eratzten dira urtero duela bost edo sei urte, eta jendeak ongi erantzun izan du beti, batez ere gazteek. Nahiz eta multzo handia izan alfabetatua, oraindik bada gure herrian anitz jende, analfabeto dena. Euskeraz mintzatu hori bai, baina zerbait idatzi behar dugunean erderara jotzen dugu eta irakurtzerakoan zer esanik ez euskeraz oso gaitza egiten zaigu, eta irakurtzen dugun apurra nahiago dugu gaztelaniaz irakurri.

Ikastetxean eta ikastetxetatik at erderaz pentsatzen erakusten dugute, gure hizkuntzan idazten eta

irakurtzen ez digute erakutsi, guk lasai eta patxaran bizitzeagatik ez dugu ikasteko ahaleginik egiten, izugarriko erdal joskera sartzeko arrixkuan gaude, zeren oraindik behintzat gure artean joskera dezentexate jatorra erabiltzen da bainan, zenbait erdal joskera erabiltzen dugu, bide honetan pixkana pixkana gure izatea xahutuz goaz eta orduan la zer egiten dugun. Kontura gaitzen bada garrantzia handia duela hizkuntzak. Gure uentsabide eta gure bizitzeko tresna izan behar duela eta ez dugula aski hitzegiteaz bakarrik.

TXINPARTAK

AZKOITIA

Epelde ta
Larrañaga, S. A.

ALGADOI - ARILKETAK
Urrutizkiña: 81 17 43
— AZKOITIA —

«ALBERDI ANAIK» LANTEGIAK

TORLOJUGINTZA BEREZIA ESKEMA ERAKUSGARRIAKIN

Urrutizkiña: 81 19 70
— AZKOITIA —

“Euskize” Denda

SALGAIRIK ON ETA MERKEENAK

Urrutizkiña: 71 15 23
— AZKOITIA —

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'uzu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilili beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu eros!

JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

JABON LAGARTO!

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARRO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIRATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 05

DONOSTIA

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al-
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander,
Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B. Ergobia - DONOSTIA

Telefonoak: 450313 eta 459723

Apto. 1381
Apto. 1381

ECHABE

ETXABERREN
Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 24

ZARAUTZ

ERAMAN - EKARRI'rako
AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK

ERRI GUZTIRAKO

Urrutizkiñak: 421389 - 427726

Iparraguirre, 8 - DONOSTIA

ERLO MEKANIKA EGINTZAK

ABEEN TARATULUAK

Avda. Julio Urkijo, z/g. Urrutizkiña: 81 19 60
— AZKOITIA —

Elias Larrañaga

BERORIKO EGIN MOLDEAK

(Tratamientos termicos)

Julio Urkixo-ren Etorbidea, 30 Toki Alai
— AZKOITIA —

AMUEBLADORA AZCOITIANA

BERTAN ORDAINDUTA ETA EPEATAN
LOTEGIAK - TRESILLOAK - JANTOKIAK - BAR-ERREDIZAK
OE-SOFAK - TAMANAZKO ERREDIZAK

K. Nagusia, 98 Urrutizkiña: 81 16 31
— AZKOITIA —

«PIKUA» LANTEGIAK

NAIZ ZUZENEN NAIZ ELIKOIDEEN,
OZKADURA ZUZENDUEN EGINTZA
INDUSTRI ALDEAN

Urrutizkiña: 81 18 54

— AZKOITIA —

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 224440



Onen ajentziak erri auetan dituzu:


Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea,
Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin,
Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero,
Kadreira, Andosilla ta Noain-Berriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rocha-
pea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin,
Otxagabia, Karkar Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero,
Cadreira, Andosilla y Noain-Berriain.

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbietta, 65

DONOSTIA



Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserrri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira Joan
etorriak

Baserriaren alde

LA CASA DEL CAFE

Juan Jirondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia



LIZUAN MEKANIKA EGINTZAK

ERDIRATZAILLEAK
PALAKEN ZUZENTZAILLEAK
HIDRAULIKO SAKATZAILLEAK
MAAI GURUTZERATUAK

Alzibar, 7

Urrutizkiña: 81 17 75

— AZKOITIA —

Sudupe Artajalegi Anjel

TORNILLUGINTZA TA MAKINAZKO LANTEGIA

Zona Industrial



Urrutizkiña: 81 14 58

— AZKOITIA —

NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK
OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek
sukaldian

TXIMIST-INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD
LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA
Aparatos de maniobra, distribución y control

OLIO-INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE-LAHMEYER
WUPPERTAL-ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX-ROTH GMBH Alemania
RUHRITAI Sp A Olio-inderra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Lantegi ta landolak:
Jolasokietak (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ar) ta 351800
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Enlejo Sarda, 18. Urrut. 220225-06
VITORIA



AZKOITIA

Azkoitiko gizon jakintsu bat Trino de Uria jauna

Gure txoko honetan gizon jakintsuak ezagutu ahal izan ditugu. Hoietakoa bat, epairik gabe, Trino de Uria jauna genduen. Behar bada azkoitiarrok ez dakigu zenbaterainoko lanak egin zituen jaun honek, Azkoitia eta Euskal-Herriaren alde.

Guk ezagutzen genduen gizon bakarti haren hainbesteko lana egin zuenik, pixka bat bederen ikusi ez bagendu ez genduen sinistu ere egingen. Harritzekoa eta ikustekoa da berak zedukan, eta egun bere etxean dagoen liburutegia. Orduak eta egunak igaro ditezke material guziaz begiratu eta aztertzen. Oso antzinakoak direlako, beste inon aurkitzea zaila izanen lirakeen liburu eta manuskrito sorta ederra aurkitu daiteke liburutegi horretan; Azkoitiko Zaldun-txoen sortzaile izan zen Peñafloredako Kondeak eginko lan eta Bizkai eta Gipuzkoako Batzar edo "Junta General-etako agiriak lekuko.

Bestalde berriz hainbat liburu egilek Trinori sor zizkioten mesede eta berarekin zuten adiskidetasuna hilde zela berari bereziki eskeini zizkioten anitz liburu ikus ditzakegu: Pio Baroja, Oteiza, Jose Miel Barandiaran, Jose de Artetxe, Julio Caro Baroja eta hainbat eta hainbat herbesteko jaintsuk.

Baina guk pentsatu ere egiten ez genduen, berak eginko hainbeste lan aurkitzea zen. Beste inork ez bezala ezagutu eta aztertu zuen Azkoitiko kondaira. Herri bezala sortu zenetik gurdainoko aldaketa eta eboluzio guztiak beren ohar eta detalle denekin eskuz idatziak ditu eta idatzi hau guziaz, urbanizazio aldetik egindako aldaketak zer nolakoak izan diren marrazki bidez osatuak. Eta benetan marrazkilaritzarako ere esku berezia ageri zaio.

Bere herriko kondairari buruz egumeroko eta aldizkarietan aski idatzi, eta kondairagile ezagun asko bere azterketaz jantzi bazituen ere, hainbeste urtetan gertatzen ari zen Azkoitiko kondaira osoa argitaratzeko jaoan zen mundu honetatik.

Eta Azkoitiko histori ez ezik Euskal Herriko kondaira eta artea ere anitz ezagutzen zituen.

Orain arte aipatutako lanak nahiko zail eta astunak izanik ere, zen horretan gelditu. Lan horretatik at zenbait euskal itzulpen eginko zituen, adibidez: Salomon erregek idatzitako "Cantar de los Cantares" izeneko liburua gai bakoitzari dagokion marrazkiz osotua. Persiako olerkari ezagun baten olerkiak ere itzulitatuak ditu, berdin Renanek ere eta beldur gabe esan genezake oso euskara jatorrez idatziak direla. Hitz batez hizkuntza eta bere joskera ongi menderatzen zituela.

Idazle eta margolari ez ezik musikari ere bazen Uria jauna. Berak Arissa-ko Andre Mariari euskaraz eginko abesti bat da Beirut-en arabek idatzitako aldizkari batean orain arte agertu den euskarazko lan bakarra. Euskal Herriko anitz musikorekin harremanak zituen; Uruñuela, Aita Donosti etab. arras ezagunak eta lagunak zituen.




Trino de Uria y Uria ("Ayalde" k egiña)

Ikus dezakegunez langile iaio eta trebea genduen Trino de Uria jauna, gizon jakintsua eta apala. Isil-isilik lan ugari egin zuena noski.

Gure lantxo honen bidez horrelako gorazarre bat egin nahi izan diogu. Gorazarrea alde batetik, eta bestetik berriz, idazlan hau bide dela, azkoitiarrok gizon honen eginkizunaz pixka bat bederen jabetzea nahi genduke.

TXINPARTAK



Zeruko
ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).

Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez gal-detu

Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta
-------------------------	----------

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUIÑEA
D. L.: NA. 80-1963

KELMI

Elektronika



MAKINA ERREMINTANTZAKO APAILUAK

K. Nagusia, 56

Urrut.: 812343-812382

— AZKOITIA —

“UNAMUNO”

Pintura Merkataritza

PINTURA, PAPEL MARGOZTUAK ETA APAINGARRIZKO LANGAILLUAK

Mayor, 49
Urrutizkiña: 81 21 20

Julio Urkixo, 18
Urrutizkiña: 81 16 15

— AZKOITIA —

AZKEN PORTU

Bar
Edaritegia

Jose Anjel
Aldabaldetrek

LUR-ONDASUN JABEGOAREN ARTEKARIA
LANDAK, DIRU-AURRERATZEAK...

Inmaculada, 5-1.º

Urrutizkiña: 84 16 32

Z A R A U T Z

Manufacturas ZARAUZ

Landola eta Ofizina: Zona Industrial. Urrutizkiña: 84 11 46
ERAKUSKETA. DONOSTIAN: Hernani, 7. Urrutizkiña: 41 56 73
ONDARROAN: Primo de Rivera, 37
ELGOIBAREN: Plaza de Urbitarte, 1. Urrutizkiña: 74 16 76
ZARAUZEN: Santa Marina, 20. Urrutizkiña: 84 16 17

Z A R A U T Z

Itxaropena, S.A.

LIBURU EGINTZA-OFSSET
EVA GUZTIEAKO INPRENTA LANAK

Z A R A U T Z

U S U E

TELEBIZIO, IRRATI (LOIOLA ENTZUTEKOAK)
ETA ZURE ETXEAN BEAR DITUZUN ARGI INDARREZKO TRESNAK
Zinema Pelota-lekuaren ondoan

Primo de Rivera, 34 Urrutizkiña: 84 15 01

Z A R A U T Z

BAR ETA JANTOKIA

OTZARRETA

EZTIAK - BATAIOAK
ARRAI AUKERA - TXULETAK EZIN OBEAK
ARRAMARRILLAN EGINDAKO
ZAPALDA ZABALA KANPOAN

Urrutizkiña: 85 16 19

Z A R A U T Z

Martiarena Irarkola

INPRENTA LANETAN SENDO JABETUA

—oOo—

Kale Nagusian, 18 Urrutizkiña: 84 13 28

Z A R A U T Z

SEASKA ETXEA

AURRENTZAKO ASMA - EGINTZAK
Aurren Kotxeak — Seaskak eta umeen konfortak
LOYOLA AIZPAK

Pilar-ko Ama Birgina, 4 Urrutizkiña: 84 12 47

Z A R A U T Z

Jose M.ª Unanue

MUEBLERAKO TAILLA LANETAN APARTEKOA
TORNU LAN BEREZIA MUEBLEGINTZAN LAGUNTZAILE

Apartado 124
Oriente, 22-28

Urrutizkiña: 84 13 77

Z A R A U T Z

Merceria Manterola

AUKERA AUNDIKO
BITXI - DENDA

Primo de Rivera, 15
Z A R A U T Z

Felix ALBERDI

JOSTUNDEGI
TA
EUNGINTZA

San Franzisko, 27
Urrutizkiña: 84 19 50
Z A R A U T Z



GLORIA ETXEA

Urrutizkiña: 84 12 09
Etxekoa: 85 15 83
San Francisco, 25



Etxerako Euntetgia
Oial-sare (visillo)
Oestalki
Mai-zapi edo mantelak
Toraja edo toallak

Z A R A U T Z

Radio TV

ECHEVERRIA

VANGUARD - RADIOLA - ZENITH - TELEFUNKEN - KELVINATOR
ORDEZKARIA

«Colectiva»tan jartzaileak

Primo de Rivera, 37
Iñurritza-«LAO»

Urrutizkiña: 84 12 74

Z A R A U T Z

Uria Muebleak

MUEBLE EDERRAK NAI DITUZU?
IKUSI URIA'RENAK

DONOSTIA
Usandizaga kalean 29'gn
Urrutizkiña: 42 18 92

ZARAUZ
V. Pradera kalean 3'garrena
Urrutizkiña: 84 19 15

J. EZENARRO TAPIZTEGIA

LEIO-OIAL, OE-GAIÑEKO TA KOLTXOIAK
ERA GUZITAKO TAPIZGINTZAK

Calvo Sotelo, 2

Urrutizkiña: 84 17 75

Z A R A U T Z

URKIA ETXEA

BERTAKO TA KANPOKO ALBISTARIAK
BAZUA TA ERREGALO GAIK

Mayor, 44

Z A R A U T Z

Urrut.: 84 16 33

TABLEROAK - ATEAK - TXAPAK - ZURAK
FERRETERI - SALGAIK

JOSE DE EZPELETA

Industri Saila

Urrutizkiña: 84 19 66

Z A R A U T Z

TXIMIST-INDAR EZARKETA TA KONPONKETAK, BEREKILEKO TXIMIST-
INDAR LANAK, ERREGALOTARAKO SALGAIK, IRRATI, URRUTIKUSKIÑAK
ETA SUKALDETARAKO MAKIÑAK

Santa Marina

Elektrika Denda

Santa Marina, 20

Urrutizkiña: 84 16 19

Z A R A U T Z

B E D I

— Denda berria
— Neurrira egiten dira jertziak
— Baita esku-lanerako ari matazak
— «Pingouin» eta «Esmeralda» aukera aundia


Pilarreko Andre Maria, 1

Urrutizkiña: 85 10 08

Z A R A U T Z

Suministros TREKU

BURNIKI GAIK, MUEBLETAKO OSAGAIK - KAJOI - EGINTZA



Primo de Rivera, 35

Urrutizkiña: 85 12 63

Z A R A U T Z

ENE ZARAUTZ MAITE

Egun batez Zarautz nerea zela pentsatu nuen. Ni nintzela Zarautz.

Pinu luze batek itzala bere du, olatuek beti indar berritzen dute hondartza, eta gure herriko eudi gozoak ez du aitzakiarik.

Amets horretan, Zarautz nintzelakoan, nenbilen nere gorputz aulak aulak itzalik ematen ez zuela konturatu nintzenez, ez nuela olatuen hotsik entzuten nabarmentzean, eudi gozoak lokatza bakarrik zekarkielarik ikustean.

Zarautzen bizi naiz eta benetan maite dut Zarautz. Benetan maite dut bere sufrimendu izkutua, bere arnasa jori bainan gaisoa.


Halare, bada Zarautz maite ez duen zarautzarririk.

Behar bada, Zarautz maite ez duenak ez ditu lerro labur, sentikor hauek irakurriko.

Ez bai zaio axolirik.

KOLDO ESNAL

ZARAUTZ



Apunte labur batzuk

—Zarautzen badira haurrak. Haurrek badituzte, bere beharrak. Behar hoiek betetzera beharturik dagoena ere bada Zarautzen.

Jolastokiak ez lirake soberan egonen. Beraiantzako, haurrentzako prestaturiko festak ere ez.

Tabernara eraman behar ote ditugu haurrak?

Pentsatuz, pentsatuz, nun dago kolupio bat Zarautzen?

Hain xuxen ere, joan zen astean Mikel Laboarekin nintzen haur bati buruzko konsulta bat egiten. Haurrak bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaioala bainan ezin zuela adierazi zionean, Mikelek Zarautzen bizikletan ibiltzeko tokirik ez a' zegoen galdetu zidan. Eta nik ezetz erantzun. Haur batek Zarautzen, hondartzatik kanpo ez du jolasteko tokirik.

Nik ez dut kolupioak erosteko dirurik. Bainan pentsatuz, pentsatuz, udaletxeak badu dirua. Eta dirurik ez balu ere (?), Zarautz ez da guretzat, ez da kontratistentzat.

—Ez dute, ez, Zarautzek azken urte hauetan historiako gauza ugari utzi dituenik esanen.

Monumentoak, etxe orijinalak, parkeak... Zer ote da guzi hori? galdetuko du norbaitek. Eta bere etxean ongi jarririk dagoen ESPA-

SAREN umeren bat hartu eta hitz hoi en esanahia begiratzen hasiko da.

Alkate jauna, Euskalzaleak, herriko gaztedia, noizko da Lizardiren omenez agindu zen oroigailua? Noizko dira gure haurren solasarako beharrezko diren jolas-lekuak, noizko da gure urbanizazioaren azterketa sakon bat?

Eta ez esan, arren, gauza hoi etan ari zaretenik. Gezuraren itzala luze omen da.

—Udara norentzat ote zen galdetu zidan lagun batek.

Norentzat den? Galde tabernetako prezio jartzaileei.

Nere erantzuna, egitan, ez da oso ongi hartua izan.

—Inurritzako apaizak bere larunbatetako meza euskeraz ematen jarraitzen du. Eta meza horretan udazale (gu ere udazale gara bainan...) bezain herritar izaten da. Halare meza euskeraz izaten da.

Nola lortu ote du apaiz horrek horrelako mirariarik? Parrokiako apaizek eta fraileek (Zein herritako fraile ote?) ez dute sekulan horrelakorik lortu hainbat urteren buruan.

Hainbat urteren buru faltan.

LAUSARE

Gaur egungo heziketarekiko legeek elebiko irakaskintzari berebiziko garrantzia aitortzen diote. Hona adibide batzua:

Frantzia, 1951gn Urtarrilaren 11-ko 51-46 legeak jatorrizko hizkuntzak legetu egin zituen, Lehen-Irakaskintzan erabil zitezkeen aginduz eta Unibertsitatetan haukerako gai izan zitezkeen.

Bobiet Elkartean diren ehun-bat jatorrizko hizkuntzak oro erabiltzen dira irakaskintzan. Eskualde elkartuetan eta libro direnetan, irakaskintza bertako hizkuntzan eman ohi dute.

Belgikan, flamenkoa eta frantsesa berdinkotzat jotzen dira.

Bretaña Andian, lehen irakaskintzan galesa erabiltzen dute; Polonian lituaniera; Suezian lapoiera, e.a.

Johnson-ek 1968gn Urtarrilean izenpeturiko legerari esker, hispano jatorrizko haurrei irakaskintza ofiziala erderaz eman ohi zaie, lehen eta bigarren mailan. 1970gn. laguntza ofiziala 40 milioe dollar aintbestereinokoa izan zen.

«LIBURU ZURIA»

Bizkaiko «Euskerazaleak» elkarte-ko buruzagiak Villar Palasi Ministro izandakoarengana agertu bat egin

Elebiko irakaskintza

zuten. Heziera eta Zientzia Ministro zen jaun honek «gorde eta lagundu behar den kultur altxor»tzan jo zuen Euskera.

Berehala agertu zen Liburu Zuri ospetsuak honela dio: «Elebiko Eskualdeetan E.G.B.ko ikasgaiak jatorrizko hizkuntzaren ikastearekin osa ahal izango dira».

Heziketarako Lege Berriak, bere 17gn artikuluan... «garrantzi handia ematen dio... amaren magaleko hizkuntza zaitzeari».

Hauk guztiak ezaguturik, Heziketa

eta Zientzia Ministerioari, bere garaian, elebiko irakaskintzarako baimena eskatu genion. Baimena 1972gn Azaroaren 22an etorri zitzaigun.

Hau guziagaitik, egin nahi dugun ikastola berriak beste edozein ikastetxek bezainbat laguntza ofizialik eduki behar du eta irakaskintza bai euskeraz bai erdaraz eman ahal izango du.


Hau guztia lortzeko, ordea —eta barka berriz eta berriz ere aipatzea— terrenoa erosi behar dugu eta erosteko zure laguntza faltako ez zaigula badakigu.



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459
DONOSTIA



YANY

SUKALDEKO MUEBLEAK
EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)

ZARAUZKO IKASTOLAREN BERRI

Historia labur bat

Zortzi urte dira Zarautzko ikastola sortu zenetik. 1965gn. urtean guraso eskualde talde batek hartu zuen bere esku gure euskera gorde eta indartzearen egin beharra. Frantziskotarren laguntzarekin eta Parroki-etearen babesean sortu zen Ikastola.

Antoniana-Txikia deritzan tokian ekin genion hiru andereño eta 120 ikaslerekin. Gurasoek izendatutako Batzordeak eta andereñoek harreman jatorrak izan zituzten hasiera-hasieratik eta honela joan da Ikastola bere arazo guztiak konpontzen, herriko eskualdearen laguntzarekin. Urrengo urteak zehar, nabarmena da Zarautzko gurasoek Ikastolarekiko izan duten konfiantza. Orain jarraitzen duten zerrendak ikustea aski da honetaz ohartzeko: urtez-urte honela joan da Ikastola:

Ikastaroa	Irakasle	Parbulario	Oinarri heziketa	Danera
1965-1966	3	120	—	120
1966-1967	7	220	—	220
1967-1968	11	280	30	310
1968-1969	13	320	60	380
1969-1970	15	310	150	464
1970-1971	17	273	257	530
1971-1972	20	286	314	600
1972-1973	21	274	399	673
1973-1974	24	250	500	750

Gure semeek merezi duten

ikastola berria eraiki behar dugu!

Oraingo, terrenoa haukeratu eta erosteko eskubidea (opción de compra) lortu dugu. Inurrizako zelaia eta burni-bidearen tarteko lur zatia da; 5.500 metro kuadro du eta sei miloe balio. Dirutza hau aurten bertan (Urriaren 6a baino lehen) behar dugu. Gaur egungo eginkizun premiazkoena hauxe dugu. Gaurko eskaera honetarako da.

Lana egin nahi lukeenarentzat zeregirik badugu. Diru ematea erraza ez bada, eskatzea ere ez da ba, eta eskatzerakoan ere laguntza behar du Batzorde honek. Herriko bazter guztiak miatu beharko ditugu, dirutza hau jasoko badugu eta zuen laguntza zeharo estimagarria litzazuke norbaitengana diru eske jatorakoan; guztiok balio dugu lan honetarako, guztiok ezagutzen bait dugu lagun edo ezagun dirudunik. Esan eiguazu, lehen bait lehen, laguntza hau eskaintzekotan bazaude.

Eskatzen hasiz gero, laguntza ez ezik dirua era eskatu beharrean gaude. Emateko asmorik baduzu, gure bisitaren zai egon beharrik ez duzu. Bankueta Aurrezki Kutxek badeute gure arazoaren berri eta dirua jaso ta aurreratzeke ere asmotan gaude. Eman nahi litzakeena behin

osorik ematea ez dago guztion esku; herriko bi Aurrezki Kutxak eta C.L.P. aurreratzeke prest gaude, kreditu pertsonal baten bidez. Adibidez: Hamar mila peseta ematea erabakiko bazenu, diru hori eduki beharrik ez duzu: zoaz Kutxa hoetako batera eta kreditu bat eman-go dizue; zuk, bost urtetan zehar, hilero 200 peseta itzuliko zenuke.

Denean bezala, honetan ere neurriak gaude. Eman nahi denaren eta ordaindu beharko litzakeenaren adibide batzu emango dizkizugu:

Eman nahi dena	Hileroko itzultzea (amortización)
10.000	200,—
20.000	400,—
30.000	600,—
40.000	800,—
50.000	1.000,—

Zertan gauden badakizu. Zertaz ari geran ere bai. Jator jokatzeko haukera lehen ere izan dugu eta orainartean egindakoarekin ez da inor lotsatuko. Gure haurrei elebiko irakaskintza egokia, modernoa, jatorra emateko haukera dugu gaur. Guztion laguntza behar dugu eta etorriko zaigula badakigu.

Salbatore Mitxelena Irakas Elkarte Kooperatiba

Legezko baimena lortu ondoren zein eratako Elkartea osatzea komeni den erabaki behar zen. Egin zen Batzar Nagusia horretarako eta erabakia hartu ere bai. Batzordeak proposatutako Kooperatiba era haukeratu zen; era hau haukeratzerakoan Estaduaren laguntzak eduki ziren kontutan, Kooperatibak bait dira Estaduaren lehen laguntzak jasotzen dituztenak. Honetarako behar zen papel lan guztia egin dago eta, Obra Sindical de Cooperacion-en informe onarekin batera. Lan Ministeriora bidalia. Betirako baimena laister etorriko delakoan gaude.

Kooperatiben araudiko 5-garrenak agintzen duenez, Elkartea honetan ikasteko adina duen edonor haurren guraso edo-ta ordezkari izan daiteke bazkide.

Bazkide-laguntzaile, berriz, irabaz asmorik gabeko edozein pertsuna edo elkarte izan daiteke.

Hitz bitan, gurasoak ez ezik, Batzar Nagusiak erabaki dezan kuota ordainduko duen nornahi pertsuna edo elkarte izan daiteke bazkide.

Bazkide guztien izenak gordeko dira Elkarteko zerrendetan eta bakoitzari bere agiria emango zaio.

Lanerako Ministerioak lehen baimena eman dezan bezain laister, gai berezi honetaz Batzar Nagusia eratu da.

Batzorde honek ahalegin guztiak egingo ditu Elkartea hau lehenbait-lehen lortzeko; Elkarteari indarra, berriz, herriak emango dio. Egin nahi dugun guztia egingo bada, indarra ere beharko da.

Oharra: Orain terrenoa erosteko emango den diruak Kooperatibako Bazkide izateko ere balioko du.

INBERSIO OSOA

Terrenoaren balioaren gain eta Heziera eta Zien-

tzia Ministerioaren aginduz, 640 ikasle izango duen E.G.B. Ikastolak 2.740 m² behar du neurtu; honen gain, 330 m² gimnasioarentzat.

Gauzak honela, eraikitako terreno guztiak

2.740 + 330 = 3.070 m² izango dira.

Metro kuadroa, eraikita, 5.500 pta. jo dezagun; danera:

3.070 × 5.500 = 16.885.000 pta. litzake.

Zergak, osaketak eta abar, 18.000.000 pesetaraino jo beharko dugu.

Dirutza hau ordaintzerik ba ahal dugu?

Siadeco-k bere garaian egindako estudioak dionez bai, eta Batzar nagusian honela adierazi zen. Ordainketa bi epetan egin beharko litzake:

1.º epea.—Terrenoa osorik ordaindu, gure izenean jarri, proiektua egin eta honek eska dezan estudio ekonomikoa egin. Estudio honen bidez hartutako erabakiak sendoak izango lirake. Honek guztiak, ordea, 6.500.000 pta. balio ditu. **ORAIN BEHAR DITUGU.** Epe honetan Estaduko laguntzak lortzen ere saiatuko ginake.

2.º epea.—Ofizialki esan dutenez, Heziketa eta Zientzia Ministerioak Agindu eta baldintzak betetzen dituen edozein Elkartea, legeztatua izanik, noski, «de interés social» izendatuko litzake. Hau lortuz gero, Estaduko laguntzak «a fondo perdido» etorriko lirake. Eraikitarako kondizio onak eman ohi ditu Banco de Crédito a la Construcción-ek ofizialki. **Honetarako, ordea, lehen baldintza TERRENOAREN NAGUSITZA** edukitzea da.

Ikastetxe berri baten beharra

Lehen ikusitako zerrendak eragiten dio gure pozari, eta garbi dago begi zabalenak ere ez zuela uste horrelakorik gertatuko zenik.

Datorren ikastaroan eta Oinarri Heziketan, 500 ikasle izango ditugu, eta hamalau irakasle ekin beharko diote lanari: Bost andereño, bost maisu eta lau lizentziatu.

Ikastetxea bi hizkuntzetan irakats ahal izateko onartua du Ministerioak, baina onartze hau Ikastetxe berri baten eraikitzeari loturik dago, Heziketaren Lege Berriak eskatzen duen bezala.

Bestetik gure ikastola iritsi zaigu maila heldu eta egoki batera eta ez da bidezko gure haurrak hainbat toki ezberdinetan sakabanaturik edukitzea. Datorren ikastaroan hiru toki ezberdinetan jardun beharko dute: «Pilartxo enea», «Egun on» eta «Azken Portu» izango dira hiru txiak,

honetan dakarren zailtasun ikaragarriekin.

EZ. EZIN DUGU HONELA JARRAITU. GURE SEMEEK MEREZI DUTEN IKASTETXE BERRIA ERAIKI BEHAR DUGU.

Bizkar gainean eta bihotz barnean hartu dugu lan hau, eta zuen laguntza osoarekin aurrera eraman behar.

Lehen pausoak emanak gaude. Terrenoaren diru seinalea ere emana dago eta ikastetxe berriaren proiektua ere eskaturik dago.

Diru seinalearen epea Urrilak 6 amaitzen da eta egun honetarako ordaindu behar ditugu terrenoak balio dituen 6.000.000 peseta.

Bainan guk ez dugu dirurik eta horregatik egiten dugu dei hau, denongana zuzentzen gera, enpresa

eta herritarrengana, batzorde eta bazkideengana, diru-etxetara... bere ahalmenen nehurrian lagun dezaten.

Itxaropen osoz begiratzen dugure gure ikastolaren etorkizuna, eta badakigu eraikiko dugula, gure herriak ez dituen indarrak ere asmatzen bai dituen hain sakonean daramakien EUSKERA aurrera ateratzeko.

Denok osatzen dugu Euskal Herria eta denok egin beharreko galderra da hauxe:

Zer egingo nuke nik euskera salba dedin?

Erantzunik ez du zalantzarik. Zarratzen dituen premian gaude. Horregatik.

ZURE LAGUNTZAREN ZAI GELDITZEN GERA.